

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

Euskara ikasteko udal laguntzak eskatzeko epea luzatzea

BDNS (identifikatzailea): 401771

2018ko ekainaren 13an, 2017/2018 ikasturtean euskara ikasteko udal laguntzen urteroko deialdia argitaratu zen, ALHAOn (68. zk.). Eskaerak aurkezteko epea amaituta, ez da agortu aurreikusitako aurrekontu kreditua. Horiek horrela alkatetza honek erabaki du 15 egunez luzatzea eskaerak aurkezteko epea. Epe hori iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuko da. Azken eguna baliogabea baldin bada, hurrengo lehen egun baliodunera luzatuko da.

Lapuebla de Labarca, 2018ko uztailaren 2a

Alkatea

MAIDER MURILLO TREVIÑO